



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

2015/12/22

Erakusketa barria Batzar Nagusietan: Aitana Camporen eta Jorge Gimenoren "Simbiosis"

Aitana Campo eta Jorge Gimeno EHU-ko Pintura masterreko ikasleen "Simbiosis" da Batzar Nagusien eta Arte Ederretako Fakultadearen erakusketa apustu barria, erakunde biek joan dan legealdian bultzatu eben lankidetzarako programatik sortua. Horren bitartez, etorkizun handiko gazteek leku egokia daukie hiriaren erdigunean euren sorkuntza lanak erakusteko. 16 artelanen osotzen daben proiektu komuna urtarrilaren 23ra arte egongo da Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua), goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara, astelehenetik barikura; eta zapatuetan, eguerdiko 14:00ak arte. Sarrera librea izango da.

"Simbiosis" jolas ebokatzaila da, eta bertan, Jorgeren abstrakzinoa eta Aitanaren figurazinoa jarrerara sortzaile, jakin-minerako jokaera, ordena eta fantasia beraren barruan uztartzen dira.

Aitanak nahiko gauza gatxa bilatzen dau erretratuan, nortasuna erakusten dan une zehatz hori jasotea, gizakiaren gorputzaren eta arimaren bilaketea. Beste batzuen bitartez, mundua eta bere existentzia bera ikusteko modua erakusten dau, beretzat ezagunak diran eta enkarguz egindako beste lan batzuetatik urrun dagoan familia giroko berotasuna emoten daben pertsonaiak erabiliz. Izan be, lan honetan, Aitanak, munduaren aurrean ia magia beteta adierazoteko gaitasuna dauen ahiztaren, lagunaren edo maiteminduta dagoan pertsonaren emozinoagaz margotzen dau.

Jorgeren lanak hainbat zalantza pertsonaletik sortzen dira, bere bizipenak, eta formaltasun falta eta espresionismo abstraktuan inspiratutako obra libreagorantz bideratuta dagoan pinturan izandako jardunbidea dirala eta. Hainbat ehundura nahasten dituen bere lanek biziz, jolasez eta kolorez betetako lana islatzen dauen moltso abstraktua erakusten dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
22/12/2015

Nueva exposición en Juntas Generales: "Simbiosis", de Aitana Campo y Jorge Gimeno

“Simbiosis”, de los estudiantes del máster de Pintura de la UPV Aitana Campo y Jorge Gimeno, es la nueva apuesta expositiva de las Juntas Generales y la Facultad de Bellas Artes, nacida del programa de colaboración que ambas instituciones auspiciaron durante la pasada legislatura, mediante el que jóvenes talentos disfrutaron de un espacio céntrico en Bilbao para mostrar sus creaciones. El proyecto común, que se construye a través de 16 obras, permanecerá en la sala de exposiciones de las Juntas Generales (C/Hurtado Amezaga, 6) hasta el 23 de enero, con horario de 8 de la mañana a 8 de la tarde, de lunes a viernes; y los sábados, hasta las dos del mediodía. La entrada es libre.

“Simbiosis” es un juego evocador en donde la abstracción de Jorge y la figuración de Aitana, encajan dentro de una misma actitud creadora, una disposición a la curiosidad, al orden y a la fantasía.

Aitana busca en el retrato algo tan difícil como la captación del momento exacto en el que se muestra la personalidad, una búsqueda del cuerpo y el alma del ser humano. A través de otros, presenta su forma de ver el mundo y su propia existencia, utilizando personajes conocidos para ella que dan a sus creaciones una calidez familiar alejada de otras obras de encargo. Porque en este trabajo Aitana pinta con la emoción de una hermana, una amiga o una persona enamorada, que tiene la capacidad de expresarse al mundo de una manera casi mágica.

La serie de obras de Jorge surgen de una serie de dudas personales por vivencias y por su propia práctica pictórica, que fluye hacia una obra libre inspirada en el informalismo y el expresionismo abstracto. Sus obras, que combinan texturas diferentes, forman un conjunto abstracto que refleja una obra vitalista, lúdica y colorida.